



UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

2005-06 ikasturtea


BIOLOGIA

Bi aukeretatik bat hautatu, eta erantzun itzazu dituen bi zatietako aztergaiak.

A AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Irudi honek mioglobina proteinaren egitura irudikatzen du, X izpien bidez lortutako datuekin ondorioztatu dena.



Aztergaiak

- Deskribatu proteinek izaki bizidunengan betetzen dituzten bost funtzio. **(1,25 puntu)**
- Zer da entzima? Zein da entzimen garrantzi biologikoa? **(1,25 puntu)**
- Azal ezazu zer den proteinen desnaturalizazioa. Aipatu zein lotura mota gordetzen den eta zeini eragiten dion. Zein dira desnaturalizazioa sortzen duten faktoreak? **(1,25 puntu)**
- Definitu zer diren aminoazidoak, idatzi horien formula orokorra eta sailka itzazu bere erradikalen arabera. **(1,25 puntu)**



2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak


- a. Deskribatu labur meiosiaren prozesua. **(1,25 puntu)**
- b. Alderatu gene kontzeptua, genetika klasiko edo formalaren arabera adierazita, genetika molekularren arabera definitutakoarekin. **(1,25 puntu)**
- c. Birusak zergatik dira nahitaezko parasitoak? Nola sintetizatzen dituzte beren proteinak eta azido nukleikoa? **(1,25 puntu)**
- d. Azal ezazu zein den B linfzitoen eta T linfzitoen zeregina erantzun immunologikoan. **(1,25 puntu)**



B AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Irudian ur molekula bat dago irudikatuta.



Aztergaiak

a. Deskribatu uraren molekularen egitura. Aipatu uraren lau propietate fisiko-kimiko eta erlazionatu beren funtzio biologikoekin. (1,25 puntu)

b. Zein abantail ditu izaki bizidunarentzat sistema indargetzaileak edukitzeak bere barne-ingurumenean? Arrazoitu erantzuna. (1,25 puntu)

c. Landareen zelulak gai dira ingurumenaren presio osmotikoan aldakuntza gehiago jasateko, animalien zelulak baino. Justifikatu baieztapen hori. (1,25 puntu)

d. Zer gertatuko litzaioke globulu gorri bati disoluzio hipotoniko batean jarriko bagenu? Arrazoitu erantzuna. (1,25 puntu)





2. ZATIA

2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak

- Azaldu, ahalik eta xehetasun gehienez, transkripzio mekanismoa eukariotoetan. (1,25 puntu)
- Norbanako baten zelula somatiko guztiek kromosoma-kopuru eta kromosoma-mota berdinak dituzte? Arrazoitu erantzuna. (1,25 puntu)
- Zer dira antigorputzak? Deskriba itzazu bere konposizio kimikoa eta egitura molekularra. (1,25 puntu)
- Deskribatu labur birus baten ziklo lisogenikoa. (1,25 puntu)

